

Maitasuna... eta zientzia apur bat

Aurrekoan, etxeko lan bitxi bat agindu zien irakasleak: “Maitasuna zer den adieraztea nahiko nuke. Nahi duzuen bezala egin dezakezue, baina bakarka izan behar du. Ados?”.

Ai ene, maitasuna! Nola adierazi? Eta bakarka egin behar, gainera... Ez zien erronka makala jarri!



Erakarmena

Nola adieraziko zenuke maitasuna, puxika batekin eta paper zati batzuekin?

Materiala

Paper-orri bat
Puxika bat

Zer egin?

Zatitu papera, puska txikitan. Puztu puxika, egin korapiloa, eta hurbildu papertxoetara, ukitu gabe. Ezer gertatu al da?

Orain, igurtzi puxika jertsearekin (edo ilearekin, nahi duzun bezala), eta hurbildu papertxoetara. Zer gertatzen da orain?

Zer gertatu da?

Puxikak, igurtzi baino lehen, ez ditu papertxoak erakartzen. Igurtzi ondoren bai, ordea. Zer gertatzen da, beraz, igurtzean? Bada, puxika, gainerako materialak bezala, atomoz osatuta dago. Atomo horiek beste osagai txikiago batzuk dituzte, eta, igurtzean, galdu egiten ditu osagai ñimiño horietako batzuk. Horren ondorioz, objektu arinak erakartzeko ahalmena eskuratzen du puxikak.



Lana aurkezteko eguna da. Askok orriak dauzkate eskuetan, idatzita zein margotuta. Beste batzuek irudiak dituzte: buztinezkoak, plastilinezkoak... Eta badira bestelakoak ekarri dituztenak ere: Ibanek, adibidez, lore sorta bat du, eta Fatimak, bihotz-itxurako opiltxo bat.

Guztien azalpenak isilik eta adi entzun ondoren, Marikalanbreren txanda da. Paperezko orri bat hartu, eta zati txikitan puskatu du.

–Ikusten dituzue mahai gaineko papertxoak? –galdetu die lagunei, patrikatik puxika bat ateratzen duen bitartean–. Ba, sekretu bat esango dizuet: puxika hau maite dute. Ikusi!



Puxika puztu, korapiloa egin, eta jertsearekin igurtzi du. Jarraian, mahaira gerturatu du, eta... hara! Papertxoak puxikarantz hegan ateratu dira, eta hari itsatsita geratu dira!

–Bai, lagunok –azaldu die Marikalanbrek–. Puxikak papertxoak erakartzen ditu, eta hegan egiten dute, harekin egoteko. Magia? Ez, maitasuna da... eta zientzia apur bat –bukatu du, irribarre bihurritz.

